

Urnietak "Liburutegiko Xaguak" ekimena jarriko du abian umeentzat

URNIETA. Haur eta Gazteria sailak, Kultura sailarekin batera, Liburutegiko Xaguak ekimen berria jarri du martxan Urnietako udal liburutegian. Programa honen xede nagusia haurren irakurzaletasuna bultzatzea da eta, era berean, irakurketaren bidez irudimena eta sormena lantzea.

Irakurketak astearteetan izango dira 17.00etan Urnietako udal liburutegiko haur saileko gelan. Lehenengo saioa gaur bertan izango da eta hurrengoak martxoaren 22 eta 29an eta apirilaren 5ean eta 12an egingo dituzte, ordu eta leku berean.

Ekimen hau lau eta zortzi urte arteko haurrentzat pentsatua dago eta bereziki prestaturiko begirale batek zuzenduko du. Emanaldi hauek euskaraz izango dira eta usadiozko ipuinak kontatuko dituzte.

Udaletik jakinarazi dutenez, irakurketa ez oztopatzearren, saioa hasi eta gero ezingo da aretoan sartu, beraz ordurako iristea eskatzen zaie parte-hartzaileei.